

Lan-munduaren euskalduntze-alfabetatzea: euskalduntzea IKERLANen

Karmele Zuazubiskar

1. Sarrera

1994an IKERLAN euskararen erabilera areagotzeko plangintzan murgildu zen. Proiektu pilotoa izanik, hasieratik izan dugu hainbat erakunderen mota bateko edo besteko laguntza: Arrasateko Udala, HPIN, ELHUYAR, eta, bereziki, HABErena.

HABEk plangintzaren diseinua egiten parte hartzeaz gainera, plangintzaren garapenean ere laguntza teknikoa eman digu. Horrela, eta ondoren azaltzen den esperientzian zuzen-zuzenean aritu izan da lanean.

2. Zer den IKERLAN

IKERLAN Teknologi Ikertegia 1974an sortu zuen gaur egun MCC-Arrasateko Kooperatiba Korporaziokoa den enpresa-talde batek, laguntza teknologiko egokia izateko.

Gaur egun, IKERLAN ikertegi espezialdua dugu mekatronikan eta energian, eta bi tokitan dago kokatuta: Arrasaten eta Miñaoko Teknologi Elkartegian.

IKERLANek nazioartean garatutako programetan hartzen du parte. Horrela, urtero garatzen diren ikerketa-proiektuen artean batzuk Europako zenbait enpresa eta erakunderekin batera egiten dira. Ikerketa aplikatuan egiten diren proiekturik gehienak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako enpresekin batera garatzen dira.

Langileei buruz hitz egiterakoan, euskararen erabileran eta ezagutzan eragin zuzena duten hainbat ezaugarri aipatu behar.

IKERLANen 220 langilek dihardute lanean une honetan. Kopuruak gora egin du azken hiruzpalau urtetan. Duela bost urte plangintza garatzen hasi ginenean, esate baterako, 160 behargin inguru ziren.

IKERLANeko langilerik gehienek erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzte, eta, nagusiki, ingeniariak dira.

Lan-hitzarmenari erreparatuz gero, 4 multzotan banatuko ditugu langileok:

- 100 langile inguru bazkide dira. Bazkideak IKERLANeko langile finkoak dira.
- Bekadunak. Bi urteko beka izaten dute IKERLANen. Lan-beharren arabera, gerora, enpresak kontratatatu egingo ditu edo ez.

- Kontratatuak. Asko jota, urte biko kontratua izango dute IKERLANekin. Kontratatuetakoz batzuk bazkide izango dira ostean.
- ALECOPEko laguntzaileak. Mondragon Unibertsitateko ikasleek aukera izaten dute, ikastetxeko ordutegietatik kanpora, ALECOPE enpresan lan egiteko. Aukera hori ikasketak egiten ari diren bitartekoa da. IKERLANen ALECOPEko 40 langile inguru ari dira egun erdiz.

Euskararen erabilera areagotzeko plangintzan ezarritako helburuak erdiesteko, aipatutako ezaugarri horiek aldeko edo kontrako faktore bihurtzen dira.

Alde jokatzeko dute:

- Langile gazteak dira. Batez besteko adina 30 urte ingurukoa da. Gazteak aldaketetara egokitzeko erraztasun handiagoa omen du, eta kontuan izan behar dugu plangintzak aldaketak dakartzala. Gazteak, bestalde, ikasteko erraztasun handiagoa omen du. Euskara ikastea, beraz, errazago lor daitekeen helburua izango da.
- Langilerik gehienek erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzte. Ikasten ohituta dauden langileak dira. Langilerik ia gehienek beste hizkuntza-
ren bat ikasi behar izan dute, eta, askok eta askok lanean hizkuntza hori erabili ere egiten dute. Hortaz, badirudi erraztasun handiagoa izango dutela euskara ikasteko.

Kontra jokatzeko dute:

- Langile-multzoan joan-etorri asko gertatzen da. Lan-hitzarmen finkorik ez dutenak, batez beste, hiru bat urte egiten dituzte IKERLANen. Langile horiek ikaskuntzan zein erabilera egiten dituzten aurrerapausoak eurokin batera joaten dira IKERLANetik.
- Bazkideen artean multzo handi samarrak irteera asko egin behar izaten ditu IKERLANetik kanpora laneko konpromisoei aurre egiteko. Irteerok batzuetan egun bakarrekoak izaten dira, bizpahiru egunetakoak askotan. Zaila da horrela dabilen langilearentzat egunero elkartzen den ikastaldearen erritmoari ikasturte osoan erantzutea, eta, askotan, ikasturtea bukatu baino lehen taldea utzi beharrean izaten da.

3. Euskara- -eskolak erabilera- -plangintzaren testuinguruan

1989tik aurrera enpresan bertan langileentzako euskara-eskolak antolatu badira ere, 1994an ekin zitzaion euskararen erabilera areagotzeko plangintzaren garapenari. 1994 eta 1997 bitartean lehenengo plangintzaldia garatu zen. 1998an hasitako bigarren plangintzaldia 2000ko abenduan burutuko dugu.

Erabilera-plangintza garatzen hasi aurretik, emandako eskoletatik ateratzen ziren ikasleek ez zuten gerora euskara enpresan erabiltzen, ahalegin horrek ez zuen, beraz, enpresan bertan islarik. Arrazoi horrek, hain zuzen ere, bultzatu zuen IKERLANeko Euskara Batzordea plangintza zabalago baten premia aztertzea. Gogoratu garai hartan Antzuolako ELAY enpresan erabilera-plangintzako lehenengo urratsak egiten hasita zeudela.

1993an, beraz, IKERLAN harremanetan jarri zen HABErekin aukerak aztertu eta plana abian jartzeko. Plan pilotoa izanik, diseinuan parte hartu zuten HABEk, HPINek eta ELHUYAREk. Bestalde, hasieratik izan du gure plangintza honek Arrasateko Udalaren laguntza, eta, horrela, bertan aritu den teknikaria Arrasateko Udal Euskaltegiko langilea da.

Euskara-eskolak helburu eta baliabide gehiago kontuan hartzen dituen plangintza baten barruan kokatuta egote hori jauzi kualitatibo handia izan zen. Erabilera-plangintzaren aurretik emandako euskara-eskoletara zetorren ikaslearen motibazioa pertsonala zen bitartean, erabilera-plangintza abian jarritz geroztik antolatutako eskolek langileen prestakuntzan eragitea dute helburu. Horrela, euskaldunek dakitena sakontzeko modua izan dute, eta baita poliki-poliki enpresan zabaldu diren euskaraz lan egiteko aukerak baliatzeko ere. Erdaldunek, berriz, euskara ikasiaz bat, euskaldunek osatzen dituzten lan-ibilbideetan txertatzeko aukera izan dute.

Gaur egungo eskolek, erabilera-plangintzaren baitan antolatutakoak izanik, hiru ezaugarri nagusi dituzte:

- 1 Eskolen helburuetako bat da euskara ikastea, enpresaren eguneroko jardueran erabiltzeko. Eta hori, geroxeago azalduko dugun bezala, oso kontuan izan behar du irakasleak. Hau da, eskolak enpresak antolatzen ditu, eta ikasitakoa langileak enpresan bertan erabil dezan nahi du.
- 2 Bigarren plangintzaldiaren helburua dugu euskara modu naturalean erabiliko den hizkuntza izatera iristea, idatziz eta, batez ere, ahoz. (Azpimarra IKERLANek jarritakoa da; hortaz, mintzamina helburu lehentasunezkoa da.)

Ondorioz, ikasleak, ahozko komunikazioan trebatu behar ditugu, mintzamenean eta entzumenean: gai izan behar dute ingurukoek esaten dutena ulertzeko eta beraiekin hitz egiteko.

- 3 Plangintza hauetan parte hartzea borondatezkoa da. Hortaz, euskara-eskoletan parte hartzen duten langileek ere borondatezko hautua egiten dute.

Enpresaren konpromisoa da euskara ikasi nahi duten langileen esku tresnak jartzea.

Horren adibide dugu, esate baterako, enpresak langileek eskoletan ematen duten denboraren erdia jartzen duela, langileek eurek beste erdia jartzen duten bitartean. IKERLANek ikusten du euskara gero eta gehiagotan erabiliko dela beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko, eta, horregatik, langileak euskara ikastera animatzen ditu.

Euskara-eskola horien helbururik behinena da euskaraz komunikatzeko gutxieneko gaitasuna lortzea.

IKERLANen euskalduntzeko euskara-eskolak antolatzen dira HABEk kurrikulu berrian zehaztu duen bigarren maila bitartean. Horra iritsi den euskaldun berriak euskararen ikaskuntzan sakontzen jarraitzeko euskaldun zaharrak dituen baliabideak baliatu beharko ditu.

4. Euskara- -eskolen antolaketa

4.1 Eskolak antolatzen nork hartzten duen parte

Erabilera-plangintzaren norabidea enpresak horretarako izendatu duen bertako kide batek ezartzen du. Langile hori plangintzaren koordinatzailea da, eta bere arduren artean dago plangintzaren nondik norakoak zehaztea, garapen egokirako behar diren baliabideak eskuratzea eta plangintzan parte hartuko duten mota bateko edo besteko eragileak bideratzea.

Koordinatzaile horrekin estu lan egingo duen kanpoko enpresa batek hizkuntz aholkularitza ematen du, teknikari baten bitartez.

Eskolak antolatzekoan koordinatzailea eta hizkuntz teknikaria ikasle-gaiekin eta euskaltegiekin harremanetan jartzen dira.

Hainbat dira zehaztu beharrekoak:

- Enpresak euskara ikasteko euskaltegien eta ikaslegaien esku jarriko dituen baliabideak (gelak, tresnak, etab.) eta baldintzak (ordutegiak, erantzukizuna, etab.).
- Ikasle-gaiekin: zenbat ikasle izango diren zehazteko, eta ikasle horien nahiak zein diren jakiteko, hau da, euskara non ikasi ahal izango duten (enpresan bertan, euskaltegiaren batean, euren herrian/hirian), zenbat denbora duten astean euskara ikasteko, zenbat eta non ikasi duten aurretik, etab.
- Euskaltegi(ar)ekin eta irakasle(ar)ekin: behar zehatzak, erabilera-plangintzaren testuingurua, eskolen ezaugarriak, irakasleak(ek) hizkuntz teknikariarekin izango ditu(zt)en harremanak, etab.

4.2 Erritmo ezberdinetako eskolak

1989an hasi ginen euskara-eskolak ematen IKERLANen. Harrezkero, eta erabilera-plangintza abian jarri bitartean, urteko 20 ikasle inguru aritu ziren eskola horietan. 1993an erabilera-plangintza martxan jarri zenean, 3 talde sortu ziren, 30 ikasle ingururekin, egunean ordu beteko eskola hartzen zutenak (astean bost ordu).

Bigarren plangintzaldiari ekiteko geundela, bi faktore elkartu ziren gaur egungo antolaketara bultzatu gintuztenak:

- Hainbeste urteren ondoren, zaila zen oso euskara ikasteko talde homogeneoak egitea. Ondorioz, mailari erreparatuz gero, ikastalde oso txikiak osatzeko modua besterik ez genuen.
- Ingelesko plan berria jarri zen martxan, eta orduz geroztik, ingelesa ikasi behar zuten langileek astean bi edo hiru egunetan goizeko 8etatik 9etara izango zituzten eskola horiek. Ondorioz, ingelesa ikasi behar eta euskara ikasteko interesa zutenak ezin ziren inondik inora egunero euskarako eskoletara etorri.

Egoera kontuan hartuta eta erritmoari erreparatzen badiogu, ondorengo ezaugarriak dituzten eskolak antolatu ziren:

- Lagun bateko, biko edota hiruko taldeak osatu eta astean ordu beteko-bi orduko mintzamen-saioak irakaslearen tutoretzapean. Saio horietan mintzamina eta entzunaren ulermena landu dira, nagusiki.
- Eskolaz kanpoko lana irakasleak prestatu eta gidatutako materialarekin, gramatikan, batez ere, aurrera egiteko.

Esperientzia emankorra izan da.

- Eguneroko eskolara etorri ezin den ikaslearentzat irtenbide egokia delako.
- Ikasleak ikas-prozesuan aurrera egiten duelako. Erritmo trinkoagoe-kin alderatuz gero, emaitzak ez dira proportzionalak, hau da, horrela ikasten duen ikasleak eskola-ordu berberekin emaitza hobeak lortzen ditu.
- Ezaugarri bertsuetako ikasle gutxi direnean, irtenbide egokia delako bestela euskara-eskolarik gabe geldituko litzatekeen ikaslearentzat.

Edozelan ere, jakin dakigu eskolak horrela emateak mugak ere badituela, eta bestela ere motzak ez diren ikas-prozesuak horrela gehiago luzatzen direla.

Hala eta guztiz ere, egokia dela ikusi dugu ikaslearen esku ahalik eta eskaintzarik zabalena jartzea, ahalik eta egoerarik gehienei erantzun ahal izateko.

Gaur egun, ondorengo erritmoetako eskoletan ari dira IKERLANeko langileak:

- Astean lau eskola-ordu jasotzen dituen taldea 8 lagunez osatua.
- Astean hiru-eskola orduko taldea: 3 ikasle.
- Astean eskola-ordu bakarreko lagun bateko, biko edo hiruko taldeak: guztira, 15 ikasle.
- Astean bost eskola-orduko taldean euskaltegian: IKERLANeko langile bat.
- Horietaz gainera, 1999-2000 ikasturte honetan 3 eguneko barnetegi bat ere antolatu dugu. 5 lagunek hartu zuten parte.

5. Irakaslearen egitekoaz

Erabilera-plangintzaren baitan antolatutako eskoletako irakaslearengandik ondorengo espero da:

Ikasleak oso ondo ezagutzea. Ikasleak ezagutze horretan irakasleak jakin egin beharko du:

- Ikasle horren motibazioa zein izan den eskola horietan parte hartzeko.
- Zein diren ikasturte horretarako dituen espektatibak.
- Euskararekiko zein harreman duen: norekin hitz egiten duen, hitz egiteko zein beste aukera izan dezakeen, irakurtzeko edo entzuteko paradarik izango duen, inguruan zenbat euskara entzungo duen, etab.
- Zein esperientzia izan duen euskara ikasten aritu den denboran: non ikasi duen, zer, ikasitakoak zertarako balio izan dion, izandako esperientziaren balorazioa, etab.
- Zenbat dakien: zer dakien egiten eta zer ez, batez ere.
- Etab.

Informazio hori ezinbestean behar du irakasleak ikaslearen diagnostiko zehatza egin, eta ikasle bakoitzarentzako helburuak jarri ahal izateko.

Irakasleak ikasleari buruzko datuak sistematikoki bilduko ditu. Halaber, harrez behar ditugu datuak ikaslearen bilakaera ebaluatu ahal izateko. Ez gara hemen gehiegi luzatuko, geroxeago ere puntu honen gainean jardungo baitugu.

Ebaluazioan parte-hartze zuzena eta erantzukizun handia izango du. Alor honetan, irakaslearen eginkizuna izango da, besteak beste, ikasle bakoitzari buruzko txostenak egitea, gerora ikasleari berari eta plangintzaren koordinatzaileari emateko. (Informazioa zabaltzeko ikus eranskina: *Ikasle baten ebaluazio-txostena*).

Barrutik ezagutuko du enpresa: jarduera, produktua, ohiturak, etab. Irakasleak eskolak prestatzeko orduan enpresa bera oso kontuan hartu behar du, ikasle guztiak errealitate komun horrek biltzen dituelako, eta mintzagaiak aukeratzeko eta ariketak prestatzeko orduan, derrigorrean, presenten egon beharko duelako.

6. Talde-lana euskara-eskolen inguruan

Helburuetara iristeko, prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek ezinbestean egin behar dute lana taldean: koordinatzaileak, hizkuntz teknikariak, irakasleak eta ikasleak.

Koordinatzailearen eginbeharra prozesuaren hasierako, bukaerako eta tarteko une jakin batzuetara mugatzen bada ere, irakasleen eta hizkuntz teknikariaren arteko harremana estua izango da ikastaroak irauten duen bitartean.

Metodologikoki horrela lan egiten du taldeak:

- Ikastaroan zehar agertu ohi diren arazoak identifikatu egiten ditu.
- Zergatik gertatu diren sakonetik aztertzen du.
- Zuzentzeko ekintzak zehazten ditu.
- Emaitzak egiaztatzen ditu.
- Hutsegite berriei aurre hartzen die.

Enpresara datorren *irakasleak* ahalegin berezia egin behar du enpresako errealitatea zehatz-mehatz ezagutzeko, hau da:

- Enpresa nola dagoen egituratuta: sailak eta departamentuak, erabakiak nola hartzen diren, etab.
- Enpresak garatzen duen produktua.
- Langileen ohiturak, lanarekin zuzenean zerikusia dutenak eta ez dutenak; adibidez, baimenak nola ematen diren, urteko egutegia nola onartzen den, bazkaldu non egiten den, jendea nola datorren lanera, etab.

Hizkuntz teknikariak lagunduko dio, besteak beste, informazio hori eskuratzen. Irakasleak zenbat eta hobeto jakin zein enpresatan ari den lanean, orduan eta baliabide gehiago erabili ahal izango ditu eskolok prestatu eta helburuak lortzeko.

Horretaz gainera, azpimarratu behar dugu irakasleak euskara irakasteaz gain, ikasleen euskara erabiltzeko jarreran ere eragin behar duela. Horregatik, irakaslea maiz elkartzen da hizkuntz teknikariarekin eskoletako eta eskoletatik kanpoko datuak elkarren artean alderatzeko. Izan ere, irakasleak badaki ikasleak eskoletan hizkuntzaren ikaskuntzan zer-nolako aurrerapausoak egiten dituen. Eta teknikariak badaki langileak departamentuan euskara erabiltzeko zein jarrera azaltzen duen, erabili ahal izateko zer-nolako aukerak dituen, zein faktore duen alde eta zein kontra, etab.

7. Euskara- -eskolen ardatz metodologikoak

7.1 Ikaslearen autonomia

Ikas-prozesua bizkortzeko ezinbestean behar dugu ikasle autonomia.

Ikasle autonomia da erabakiak hartzeko gogoia eta gaitasuna duena, baita hartutako erabakiak bere egiten dituen ere.

Geuri dagokigu autonomia hori piztea.

Gaitasuna lortzeko bide horretan irakasleak gidatzen du ikaslea. Horrela, ikasleak definitzen du zer ikasi nahi duen, nola eta non ikasi nahi duen eta irakaslearekin batera baloratzen du ikasitakotik zenbat eskuratu duen eta zenbateraino ari den gaitzen euskaraz komunikatzeko.

Ikusienez, ikasleak parte-hartze zuzena du ikas-prozesua diseinatzekoan. Ordainetan, eskoletan egindako lanak eskoletatik kanpora ere segida izan dezala eskatuko zaio.

Irakaslearen egitekoa tutore izatea da. Ikaslearen ikas-prozesua bideratu egiten du, behar dituen tresnak bere esku jartzen ditu, eta ebaluazioan laguntzen dio:

Eskolak ikuspegi komunikatibotik prestatzen ditu. Eskola hauen helburua ez da gramatika ikastea, baizik eta entzunaren ulermenean, eta, mintzamenean trebatzea. Ikasleak eskoletan egiten dituen ariketak bere eguneroko jardueratik ahalik hurbilen daude, bai lanarekin zerikusia dutelako bai lanetik kanpora garatzen dituelako.

Irakasleak arreta jartzen du ikasleak sendo dituen arloetan (ondo zer esaten dakien) eta sendotu beharrekoetan (zer daukan guztiz ikasi edo eskuratu barik). Azken hori, batez ere, interesatzen zaio ikasleari, zeren ikasten ari den ikasleak ezin baitu esaten duen guztian arreta jarri. Horrela, irakasleak erroreak eta hutsegiteak non egiten dituen aurkitzen laguntzen dio ikasleari, eta honek egiten ditu (lehentasunak ezarri ondoren) finkatu gabe dituen formak zuzentzeko ahalegina.

8. Ebaluazioa

Ebaluazioa dugu eskolen antolatze- eta emate-prozesuaren funtsezko tresna. Ebaluazioaren bidez jakingo dugu bezeroaren beharrak eta espektatibak asebate ditugun. Eta bezero gara prozesuan parte hartzen dugun guztiok: irakasleok, ikasleak, enpresa bera, etab.

Ebaluatu egiten ditugu ikaslearen ezagutza, ikasleen ikasteko prozesua, lortutako emaitzak, erabilitako materiala, programazioa bera.

Ebaluatu egiten da ikasturte hasieran, ikasturtean zehar eta amaieran. Ikasturtean zehar esaten dugunean, ikasturteak irauteen duen hila bete guztiei buruz ari gara.

Ebaluazioan parte hartzen dute, batez ere, ikasleek, irakasleek eta hizkuntz teknikariak.

Informazio-iturriak dira behaketa, inkestak, elkarrizketak eta biltzen den ikasleen materiala.

8.1 Ikasleen parte-hartzeaz

Ikasleak ez daude ebaluazio-prozesuetan parte hartzen ohituta. Irakasleak horretara jarri behar izaten ditu, eta, horretarako, ezinbestean, ondorengo informazioa zabaldu:

- Ebaluazioak abantailak ditu. Ez badakigu non gauden, nekez jakingo dugu noraino heltzen ahal garen.
- Ebaluazioa hobetzeko tresna da. Denoi gertatzen zaigu baliagarri, nola irakasleari hala ikasleari: irakasleak ebaluatu behar du, bere lanaren noranzkoa aldioro finkatzeko. Ikasleak ebaluatu behar du, ahalegiak non egin behar dituen jakiteko.
- Balorazioak datu erkatuen bidez egin behar dira. Ikasleak eta irakasleak jakin egin behar dute biek batera indarra norantz bideratuko duten.
- Datu asko behar dira, are baloratu nahi dena arlo bakarra denean ere. Horregatik, bide bat baino gehiago erabiliko dira datuak biltzeko, eta une batean baino gehiagotan egingo da balorazio hori.
- Ebaluazioak osoa izan behar du, ez bakarrik ikaslearen emaitzei buruzkoa. Ebaluatu egin behar dira baliatutako materiala, eskolak prestatzeko modua, ikasleak baliatutako tresnak, etab.
- Datuak taldean aztertu behar dira, ez irakasleak bakarrik eta bere kabuz.
- Lehentasunak ezarri behar dira, dena ezin da batera egin edo ikasi. Ikasleak jakin egin behar du bere ikas-prozesuan hobetu beharrekoetatik zer diren lehentasunezkoak eta zer bigarren mailakoak.
- Ebaluatu sarritan eta planifikatuta egin behar da, desbideratze bat sumatu orduko, ebaluatu eta beharrezko zuzenketak egin behar baitira.

8.2 Komunikazio ona

Ondo ebaluatu ahal izateko, prozesuan parte hartzen dutenen arteko komunikazioak ona behar du izan. Ebaluazioak ahalik objektiboena izan behar du. Datuak triangelatu egin behar ditugu, eta, horregatik, ebaluatu nahi ditugun alderdiei buruzko datuak biltzekoan, tresna bat baino gehiago erabiltzea komeni zaigu. Halaber, bildutako datuez juzgu egitean, prozesuan esku hartzen dugunok izan behar dugu partaide.

9. Ondorioak

Euskara-eskolok 11 ikasturtetan zehar antolatuta badira ere, hemen azaldu-tako gehiena azkenengo 5 ikasturteei dagokie.

Beharrei egokitze horretan iritsi gara gaur egun dugun egoerara. Horrekin dago lotuta lehenengo ondorioa:

- Euskara-eskolak, antolatze-prozesua... hori guztia zerbait bizia da, eta aldatuz doa urtetik urtera. Horrela, IKERLANen ematen ditugun eskolek astean ordu-kopuru jakina dute. Talde handi samarretan zein talde txikietan ematen ditugu eta enpresari eroso datorkion ordutegian.

Baina bada hasieratik aldatu ez denik ere, oinarritzko planteamendu metodologikoa, hain zuzen ere.

- Irakasleak taldean egiten du lan ikaslearekin eta hizkuntz teknikariarekin, batez ere.
- Etengabeko ebaluazioa dugu prozesuaren ardatz.

9.1 Hobetu beharrekoak

Bistan da ibilbide-zati bat egina dugula, baina, orain arte jasotako fruituekin pozik baldin bagaude ere, bada oraindik zer hobetua; adibidez:

- Eskoletan erabiltzen dugun metodologia zorroztu eta optimizatu beharra dugu.
- Ikasleekin batera burutzen dugun ebaluazioan adierazle garbiagoak bilatzen ari gara, eta informazioa biltzeko eta datuak erkatzeko moduak aztertzen.
- Ikasleekin batera datuak baloratu eta ebaluazioa egiteko moduan ere badugu zer ikasi.

